

Bezeroekiko harremanak

Gure zerbitzuaren helburua emakumeak gauetan modu seguruan etxera eramatea denez, oso garrantzitsua da bezero berriak ekartzea eta dugun hasierako bezeroak mantentzea. Horretarako, marketin estrategia batzuk erabiliko ditugu eta bezeroekiko harremana zainduko dugu.

Lehenik eta behin, bezero berriak erakartzeko sare sozialak izango dira gure tresnarik erabilienak, gazteak direnez eta gehienek Instagram, TikTok edo Instagram erabiltzen dituztelako, haien bitartez zozketak egingo ditugu eta laiaketak, irabazi egiten duenak gure aplikazioan deskontu bat edukiko du, Gainera, herriko jaietan kartelak eta QR kode interaktiboak jarriko ditugu, jaiei buruz gure festa planifikatu ditugu emakumeen alde kontzientzia sortzeko eta gure kostuak ordaindu al izateko dirua bilduko dugu eta pertsona famatuak deituko ditugu gure festa ezagunagoa izateko. Aplikazioa berehala deskargatzeko aukera eskaintzeko. Estrategia horri esker gure mezua modu errazean zabalduko da.

Ditugun bezeroak gurekin geratzeko gure aplikazioak funtzio garrantzitsu bat du: erabiltzaileek autozerbitzua izango dute beraiek erregistratu, erreserbak egin eta ordainketa egingo dute. Arazo bat dutenean, laguntza pertsonala izango dute, WhatsApp bidez gurekin harremanetan jartzeko aukera ere izango dute. Guk nahi duguna da bezeroak sentitzea pertsona baten laguntza izango dutela eta haiek ikustea laguntzeko prest gaudela. Horrek segurtasuna eta konfiantza ematen du, hori oso beharrezkoa da bezeroak mantentzeko hau komunikazio atalean zartuko da errezteko lana.

Bestalde, bezeroen komunitate txiki bat sortu nahi dugu sare sozialetan, bertan esperientziak partekatu eta gure zerbitzuari buruzko iritziak jaso ahal izateko. Komunitate horrek askotan gure zerbitzuari buruzko ideia berriak emango dizkigu (adibidez, ordutegi zabalagoak, garraiobide handiagoak edo segurtasun funtzio berriak) eta horrek gure eskaintza hobetzen lagunduko digu. Bezeroek sortutako ideia horiek kontuan izango ditugu hobetzeko zerbitzua. Gure bezeroak, sortuko duten komunitatea erabiliko dugu, eta beraiek lagunei partekatu egingo die eta beraien familiei, horregatik komunitateak modu indirektuan batean partekatuko dute bere web gunea, eta orregatik komunitatea oso erabilgarria izango da.

Azken finean, gure bezeroekiko harremanak dira gauzarik garrantzitsuena nahiz eta autozerbitzua eduki, laguntza pertsonala eskaintzerakoan harremana estutzen dugu. Gure bezeroa eroso sentitzea, segurtasun osoarekin eta hurbiltasunarekin. Bezeroak ondo zainduta sentituz gero, gure enpresak aurrera jarraituko du eta gure balio-proposamena benetan baliagarria dela frogatuko dugu.